

BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA JUANJO ATXA MINDEGIA PILOTALEKUA ERABILTZEKO ESKAERA. 2026-2027KO DENBORALDIA. TXAPELKETAK.

Eskatutako instalazioa: ☐ Pilotalekua ☐ Kiroldegia					
Kirol-kluba:			Helbide soziala:		
FIK:			Erregistro zk.:		
Kirol-klubeko burua:					
Harremanetarako pertsona:				tel.:	e-maila:
Kirol-mota	Maila	Eguna*	Ordutegia	Txap. mota**	Datak (hasi/akitu)

* Zehaztu: Ir.-ig.
**E: Estatukoa, Lurraldekoa, Nafarroako Kirol Jokoak, etab.

ESKAERA:

1. Epea: 2026ko abuztuaren 24tik 31ra.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaleko erregistroan, **erregistro elektronikoz**.
3. ERABILTZEKO BALDINTZAK:
 01. Erabiltzeko egutegia: 2026ko irailaren 15etik 2027ko ekainaren 30era.
 02. Erabiltzeko ordutegia:
 - Larunbatetan, 09:00etatik 22:00etara, eta, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, igandeetan eskatu ahal izanen da, 9: 00etatik 14: 00etara.
 03. Udalak beretzat gordetzen du kirol-instalazioak erabiltzeko emakida, kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarren arabera.
 04. Udalak bere gain hartzen du ordutegiak eteteko eta/edo egokitzeko eskubidea, sortzen diren beharren eta inguruabarren arabera.
 05. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 06. Erabilera-baldintzak ez betetzea, esleitutako ordutegian instalazioa ez erabiltzea, erabilera araudia ez betetzea eta Udalaren aginduak ez betetzea izanen da zehapen-prozedura hasi eta emandako baimena eten ahal izateko arrazoaia, bai eta etorkizuneko eskaeretan erabilera-baimenik ez emateko ere.
 07. Baimendutako jarduera gauzatzeko baino ez da erabiliko instalazioa.
 08. Publizitate-kartelak jarritz gero, egunero kendu beharko dira kirol-jarduera akitzerakoan.
 09. Instalazioan baimendutako jarduerarako berezko elementuak bakarrik sartu ahal izanen dira, eta inoiz ez ibilgailurik, orgik, edo instalazioa kalteku dezakeen bertze edozein elementurik.
 10. Kirol-klubak neurri egokiak hartu beharko ditu zoladura babesteko, jasan dezakeen edozein kalteren aurrean.

11. Kirol-kluba izanen da instalazioaren arduraduna baimendutako erabilera-denboran. Erantzukizun horren barnean sartuko da kirol-klubak instalazioan egiten dituen kirol-jarduerei dagokiena, bai eta instalaziora sartzen diren pertsonena ere.
12. Kirol-klubak baimendutako pertsonak baino ezin izanen dira instalaziora sartu, eta kluba izanen da pertsona horien arduraduna.
13. Kirol-klubaren erantzukizuna da instalazioa garbi eta baldintza onetan uztea.
14. Kirol-klubak kirol-pista eta aldagelan erabiltzen ahal izanen ditu.
15. Kirol-klubak berak eman beharko du beharrezko kirol-materiala.
16. Kirol-pistan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
17. Kirol-klubak, eskabidearekin batera, lehiaketaren egutegia aurkeztuko du.
18. Kirol-klubak instalazioaren arduradunari jakinarazi beharko dio (kiroldegia tel. 650586791; pilotalekua tel. 948452145), bai eta kirol-taldeen teknikariari ere, 48 ordu lehenago gutxienez, aurreikusitako erabilerarekiko edozein aldaketa gertatzen bada.
19. Kirol-klubak, instalazioaren irekiera eta hetsiera koordinatzeko, erabilera-egun eta -ordutegien berri eman beharko dio instalazioaren arduradunari.
20. Adingabeek arduradun batekin egonen dira beti.
21. Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.
"41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertselako jarduerak eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla."
22. Kirol-klubak onartzen ditu eskaera-orri honetan zehaztatutako baldintzak.

Sinadura eta zigilua

Baztan, 2026ko _____aren ____an